

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ 1997tik prezio igoerarik altuena
- ✓ Nahiz eta ekonomia hazi, enplegu erregulazioa handitu da
- ✓ Lan errentek aberastasunean pisua galtzen jarraitzen dute
- ✓ EAEko soldatako biztanleriaren %30,2a, 1.000 eurotik behera
- ✓ %25 soldata baxuagoak behin-behineko kontratuetan

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2007	12 HILE LEHEN.	2006 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	07 III	73,1	73,9	74,0
" 15-EBn	%	07 II	70,3	70,3	70,3
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	07 III	1.269.500	1.273.100	1.273.500
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	07 III	1.018.200	1.015.400	1.021.500
ALDI BATERAKO TASA	%	07 III	27,9	29,9	29,3
" 15-EBn	%	07 II	14,4	14,5	14,3
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	07 III	77.000	83.700	84.900
LANGABEZI TASA	%	07 III	5,7	6,2	6,3
" 15-EBn	%	07 II	7,1	8,2	8,0
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	07 III	14,7	16,6	19,1
" 15-EBn	%	07 II	15,5	17,2	16,8
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	07 III	7,6	7,7	8,9
" 15-EBn	%	07 II	7,8	8,9	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-URR	946.857	907.468	1.094.469
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-URR	88.744	81.974	107.139
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	07 URT-ABU	318	287	392
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-ABU	5.236	4.960	6.748
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-ABU	40.514	43.324	65.496
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	07 URT-ABU	357	416	618
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	07 URT-IRA	3,6	4,2	4,1
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	07 URT-EKA	2,5	2,7	4,5
BPGa EAEn	% ALD.	07 III	3,8	4,2	4,0
BPGa NAFARROAn	% ALD.	07 III	3,8	4,0	4,1
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	07 III	3,8	3,9	4,0
BPGa 15-EBn	% ALD.	07 III	2,9	3,1	3,5
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	07 URR	3,6	2,5	2,7
" 27-EBn	%	07 URR	2,7	1,8	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, EIN.					
2007/11/20an eguneraturiko informazioarekin			108. zbk. Egoeraren Azterketa 2007ko Abendua		



Aurkibidea

SARRERA 3

EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA 4

1. Prezio-igoerarik handiena
1997tik hona..... 4
2. Banaketa alde batera utzita,
ekonomiak hazten jarraitzen du .. 4
3. Hego Euskal Herriko
enpleguaren bilakaera..... 5
4. Generoen arteko aldeak..... 5
5. Behin-behinekotasuna
Europakoaren bikoitza da
oraino 6
6. Enplegu erregulazioa gehitu da .. 6
7. Lan-istripuak: amaierarik gabeko
fenomenoa 7

PUNTAKO GAIAK 8

1. EAEko langileen hileko
diru-sarrerak garbiak 2005ean..... 8
2. Lan-errentek gero eta
partaidetza murriztagoa dute
aberastasunean 9

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN AZTERKETA

Sarrera

Egoeraren Azterketaren 108. zenbaki honetan enplegu eta ekonomiari buruzko urteko hirugarren hiruhilekoko datuak aztertzen ditugu. Enpleguan, behin-behinekotasuna dela berriro ere Europatik gehien aldentzen gaituen aldagaia ikusiko dugu, eta ekonomian, prezioen igoera handia.

Hileko puntako gaietan, soldatako langileriaren diru sarrerak aztertu-ko ditugu, kontratu mota, lanbide-kategoria, sektore mota, generoa, edo adinaren arabera dauden ezberdintasunetan sakonduz. Euskal Autonomi Erkidegoko errentaren banaketari buruzko azken informazioa (2006. urtekoa) ere landuko dugu.

** Txosten hau 2007ko azaroaren 20an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*


Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Prezio-igoerarik handiena 1997tik hona

Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) urte arteko tasa %3,6koa izan da aurtengo urrian, hau da, 2007ko irailean baino bederatz hamarren altuagoa eta 2006ko urrian baino puntu bat altuagoa. Irailetik urrira bitarte KPIan izan den bederatz hamarreneko gehikuntza hori Estatistikako Institutu Nazionalak (INEK) 1997an estatistika bateratua egiten hasi zenetik gertatutako handiena da.

Espainiako Estatuko inflazioa Europako batez bestekoa baino askoz handiagoa da; izan ere, 27 estatuen Europako Batasunak (27-EB) %2,7ko KPIa izan zuen 2007ko urrian.


KPIaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK, ESPAINIAKO ESTATUA ETA 27-EB



Iturria: INE eta Eurostat

Aurtengo lehenengo hamar hilabeteetako inflazioa %3koa izan da. Itxura guztien arabera, 2007ko urtealdiaren itxierako inflazio-tasa ez da oraingo urte arteko %3,6tik beherakoa izango. Edonola ere, Espainiako Gobernuak urte hasieran egindako aurreikuspena (%2) baino askoz altuagoa izango da.

ESPAINIAKO ESTATUKO KPIaren BILAKAERA, 2006 ETA 2007



Iturria: INE

Datuok agerian uzten dutenez, soldatek aurreko urteko KPIaren arabera hazi behar dute negoziatio kolektiboan, aurreikusitako inflazioan oinarritu beharrean.

Prezioen igoeraren arrazoi nagusia ogiaren, esnearen eta funtsezko beste jan-edarien garestitzea da. Iragan den urte-zatian, zehazki, esnea %24 garestitu da, eta ogia %14. Ondorioz, prezioen igoerak familien eskuratzeko ahalaria eragin dio batez ere, eta ondorio larrienak baliabide gutxien dituzten biztanleek jasaten dituzte.

Premiazko jan-edarien prezioen igoerak, bestalde, espekulazio-kutsu nabaria du. Datuek erakusten dutenez eta entzun ohi dugunaren kontra, publikoarentzako salmenta-prezioak ekoizlearen prezioa baino gehiago hazi dira, alde handiz. Beraz, prezioen igoera bitarteko enpresek kontsumitzaileen lepotik posiblez garrantzitsua darabilten estrategiaren ondorioa da.

2. Banaketa alde batera utzita, ekonomiak hazten jarraitzen du

Hego Euskal Herriko (EH) **industriako jarduerak** zifra positiboak erakusten ditu oraino. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Produkzio Industrialaren Indizea %3,6 hazi zen 2007ko urtarriletik irailera artean. Ildo berean, Nafarroako Jarduera Industrialaren Indizeak %2,5eko igoera izan du urtarriletik ekainera. Hala ere, hazkunde horiek txikixeagoak dira azken aldian beretan jazotakoak baino (%4,2 eta %2,7, hurrenez hurren).



Bestalde, bai Nafarroako, bai EAeko, bai Espainiako Estatuko **Barne Produktu Gordinak** (BPG) %3,8ko gehikuntza izan du 2007ko hirugarren hiruhilekoan. Hazkundeok Europan gertatutakoen gainetik daude, aipatutako aldi horretan 27-EBko BPGa %2,9koa izan da eta.

Lehenagoko aldiekin konparatuta, BPGari buruzko datuak oraindik positiboak diren arren, gutxiengo hazten ari direla ikus daiteke. EAEn, adibidez, 2007ko hirugarren hiruhilekoko BPGa %3,8koa izan zen, aurreko hiruhilekoan %4,1ekoa eta 2006ko hirugarren hiruhilekoan %4,2koa izanik. Era berean, Nafarroan, iragan berri den hiruhilekoko hazkundera (%3,8) aurreko hiruhilekoko eta 2006ko hirugarren hiruhilekoko baino txikiagoa izan da (%4, bi kasu horietan).

Beraz, datu positiboak berresten dutenez, 2007a hazkunde ekonomikoa izan duen ondoko ondoko hamalagarren urtea da. Dena den, hazkunde jarraitu hori ez da onuragarri suertatzen ari langileriaerentzat. Aitzitik, guztiz bestela gertatzen ari dela esan dezakegu, aberastasunaren banaketa bidegabearen eraginez, etekin handiena enpresa-errentak ari direlako hartzen, lan-errenten pisua urritu egiten delarik.

3. Hego Euskal Herriko enpleguaren bilakaera

Jarduera tasa (lanpostua duten edo lan bila dabilen biztanleen ehunekoa) %73,1ekoa izan da 2007ko hirugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoko (%73,7) eta 2006ko hirugarren hiruhilekoko (%73,9) baino txikiagoa.

Langabeen kopurua ere urritu egin da, 2007ko bigarren hiruhilekoan 80.000 lagun izatetik 77.000etara gutxitu baitzen, zehazki, hirugarren hiruhilekoa amaitzerako. Datu horrek langabezia tasan ere badu isla, 2007ko bigarren hiruhilekoko %5,9tik hirugarreneko %5,7ra igaro da eta. Langabezia Europan ere gutxitu da. Era horretan, 27-EBko langabezia tasa 2007ko bigarren hiruhilekoko %7,6tik hirugarren hiruhilekoko %7,1ra jaitsi da.

Hego Euskal Herriko biztanleriari dagokionez, langabeziaren urritzea gehien nabaritu duen kolektiboa 16 eta 24 urte bitartekoena da; izan ere, langabezia tasa %18,1etik %14,7ra murriz-

tu da 2007ko bigarren hiruhilekotik hirugarrenera bitarte.

4. Generoen arteko aldeak


Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestatik (BAI) ateratzen diren datu eta ratio guztietan, argi ikusten da lan-merkatuko baldintzarik latzenak emakumeek jasaten dituztela oraindik ere.

Langabezia tasa, esaterako, hiru puntu gorago dago emakumeen kasuan (%7,6) gizonenean baino (%4,3).


Guztiok ondo dakigunez, Hego Euskal Herriko lan-merkatuko arazorik larrienetako bat **behin-behinekotasun tasa** altua da. Bada, alderdi horretan ere emakumeak dira kaltetuenak. 2007ko hirugarren hiruhilekoan, behin-behinekotasuna %31,9koa izan da emakumeen kasuan, eta %24,6koa gizonenean.

Jarduera tasak ere gauza bera erakusten du: gizonezkoen tasa %82,3an dagoelarik, emakumeena %63,7ra baino ez da heltzen.

Datuek argi erakusten dute bide luzea ibili behariko dela oraindik, emakumeek lan-eremuan jasaten duten bereizkeria desagerrarazteko.



JARDUERA, ENPLEGU, LANGABEZIA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK (%), HEH - 2007 III.



Iturria: INE

5. Behin-behinekotasuna Europakoaren bikoitza da oraino

Hego Euskal Herriko **behin-behinekotasuna** Europakoa halako bi da ia, gaur egun ere. Zehazki, HEHko behin-behinekotasun tasa %27,9koa izan da 2007ko hirugarren hiruhilekoan, eta Europakoa (27-EB), berriz, %14,4koa, aurtengo bigarren hiruhilekoan.

2007ko bigarren hiruhilekoko datuekin konparatuta (%28,3) urritu egin den arren, behin-behinekotasunak lan-merkatuko egiturazko arazorik larrietako bat izaten jarraitzen du Hego Euskal Herrian.

Aurtengo urtarriletik urrira artean HEHn sinatutako 946.857 lan-kontratuetatik 88.744 baino ez dira mugagabeak izan; alegia, sinatutako kontratuen %93,7 aldi baterakoak dira.

Behin-behinekotasunak adinaren arabera duen hedadura aztertzean, tasarik altuena gazteenek nozitzen dutela egiazta dezakegu. 2007ko hirugarren hiruhilekoan, 16 eta 24 urte arteko gazteen adin-tarteko behin-behinekotasuna %74,9koa izan da, eta 25 urtetik 34rako tartean, aldiz, %33,7koa. Datu horiek ere oso urrun daude Europari buruz jasotakoetatik; izan ere, 2007ko bigarren hiruhilekoan, 27-EBk %41eko behin-behinekotasun tasa izan zuen 15 urtetik 24rako adin-tartean.

Hortaz, datuek berretsi egiten dute langileak kaleratzeko kostuak merkatzearen egindako azken lan-erreformek ez dutela behin-behinekotasuna inola ere murriztu, eta neurriek beste

norabide batean jo behar dutela; behin-behinekotasuna justifikatzerik ez duten aldi baterako kontratazioak behar den neurrian zigortzeko lan-ikuskapenak egitea, adibidez.

6. Enplegu erregulazioa gehitu da

2007ko urtarriletik abuztura bitarte, enplegu-erregulazioak nabarmenki egin du gora. Izan ere, datuen arabera, 2006an 287 fitxa baimendu ziren, eta 2007an, berriz, 318 fitxa.

Gehikuntza hori kaltetuen kopuruan ere igaritzen da: 2006ko urtarriletik abuzturako aldian, enplegua erregulatzeko fitxen ondorioz kaltetutako langileak 4.960 izatetik 2007ko aldi berean 5.236 izatera pasatu dira eta.

Enpresek lortzen dituzten mozkin itzelei buruzko albisteak ia egunero heltzen bazaizkigu ere, enplegu-erregulazioek kaltetutako langileak gero eta gehiago dira, errealitateak frogatzen duenez.

7. Lan-istripuak: amaierarik gabeko fenomeno

2007ko lehenengo 8 hilabeteetan, baja eragin duten 40.514 lan-istripu gertatu dira, iazko epealdi berean (43.324) baino gutxiago, alegia. Aurtengo kopuru horretatik, 357 izan dira istripu larriak eta hildakoak utzi dituztenak.

Lan-istripuen gaineko datu ofizialek islatzen duten gutxipen txikia gorabehera, zifrak onartezinak dira erabat, enpresarien mozkinak langileen segurtasunaren eta osasunaren aurretik lehenestearen ondorio direla kontuan harturik. Enpresariak lan-erritmo bizkorragoak, azpikontratazioa eta behin-behinekotasuna sustatzen segitzen dute, eta, horrekin batera, laneko segurtasunaren eta osasunaren aldeko inbertsiorik egin gabe eta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea sistematikoki urratzen ere jarraitzen dute.



1

EAEko langileen hileko diru-sarrera garbiak 2005ean

RDuela gutxi, Eusko Jaurlaritzak "EAEko Lan Merkatuaren 2005eko Errolda" (LME) izenburuko azterlana aurkeztu du. Bertan, besteak beste, EAEn bizi diren langileek 2005ean hileko jaso zituzten diru-sarrera garbien azterketa egiten da. Informazio hau publikatzen duten lehen urtea denez, ezinezkoa da aurreko urteetako informazioarekiko alderaketak egitea.

Hona hemen azterlanetik ateratzen den ondorio garrantzitsuena: lanean ari den biztanleriaren diru-sarrera garbia 1.237,55 eurokoa da, batez beste.

Azterlanari gaineko lehen balorazioa egitean, EAEn lanean ari den biztanleriaren %30,2k hilean 1.000 eurotik beherako sarrera garbiak jasotzen dituelako datuak ematen du bereziki atentzia. Halaber, hilean 1.200 euro baino gutxiago jasotzen dituzten langileak %42,7 dira.

Langileek, batez beste, hilean kobratzen dituzten 1.237,55 euro garbiak erreferentziatzat hartuta, aldagai zehatz batzuek hileko zenbateko garbian duten eragina aztertzen da. Aldagaiok lanbide-egoera, kontratu mota, sektore mota, generoa, eta adinadira.

1. Lanbide-egoera

Soldatapeko biztanleriaren barruan, bi talde daude batez bestekoaren nabarmen ginetik: administrazio publikoetako soldatapekoak eta enpresa publikoetako soldatapekoak, hain zuzen ere. Talde horietako lehenengoak, zehazki, 1.548,84 euroko batez besteko sarrerak dituzte, eta bigarrenak, berriz, 1.392,36 eurokoak.

Enpresa pribatuetako soldatapekoei dago kienez, ordea, gain behera doaz diru-sarrerak (1.156,08 €).

LANEAN ARI DEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA ETA LANBIDE-EGOERA

Lanbide-egoera	Batez besteko sarrerak €tan	EAEko batez bestekoa-rekiko %
Adm. Publiko. Soldatapekoak	1.548,84	125,2
Enpresa publikoetako soldata.	1.392,36	112,5
Enpresa pribatuetako soldata.	1.156,08	93,4

Iturria: LME

2. Kontratu mota

Aipatutako alderdi hori aztertu ez ezik, funtsezkoa da kontratu mota bakoitzak diru-sarreretan duen eraginari erreparatzea. Ildo horretan, kontratu mugagabea duten biztanleen hileko diru-sarrerak, batez beste, 1.313,01 eurokoak direlarik, aldi baterako kontratatutako langileen taldeak 987,11 euro jasotzen ditu, eta kontraturik gabeko langileek 518,31 € baino ez.

SOLDATAPEKO LANEAN ARI DEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA ETA KONTRATU MOTA

Kontratu mota	Batez besteko sarrerak €tan	EAEko batez bestekoa-rekiko %
Mugagabea	1.313,01	106,1
Aldi baterakoa	987,11	79,8
Kontraturik ez	518,31	41,9

Iturria: LME

3. Sektore mota

Datuak sektorez sektore aztertzean, deigarri suertatzen da diru-sarrera garbirik oparoenak industrian eta eraikuntzan jasotzea: batez beste, 1.297,83 eta 1.290,48 €, ondoz ondo. Batez bestetik behera, nekazaritzako diru-sarrerak baino ez daude (1.028,98 €), alde nabariaz egon ere.

LANEAN ARI DEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA ETA EGUNGO JARDUERA-SEKTOREA ETA ADARRA

Egungo sektorea eta adarra	Batez besteko sarrerak €tan	EAEko batez bestekoa- rekiko %
Nekazaritza	1.028,98	83,1
Industria	1.297,83	104,9
Eraikuntza	1.290,48	104,3
Zerbitzuak	1.209,79	97,8

Iturria: LME

Taulak erakusten duenez, zerbitzuen sektorearekiko aldea ez da oso handia, sektore horretako langileek, batez beste, 1.209,79 euro kobratzen dituzte eta. Hala ere, zerbitzuen sektoreko adar batzuei tarte luze-luzea geratzen zaie EAEko batez bestekora iristeko. Merkataritzako langileek, esaterako, 1.091,51 € kobratzen dituzte, batez beste; ostalaritzako langileek 985,30 €, eta etxe-zerbitzukoek 544,48 €. Administrazio publikoa eta hezkuntza –batez bestekoa baino diru-sarrera handiagoak dituztelarik– zerbitzuen sektoreko adar izateak argi azaltzen du zergatik dauden sektore horretako batez besteko diru-sarrera eraikuntzako edo industriako batez bestetik hain hurbil.

4. Generoa

Datuak zenbait aldagairen arabera landuta, nabari-nabaria da gizonen eta emakumeen batez besteko diru-sarreraren arteko jautzia. Izan ere, gizonen taldeak EAEko batez bestekoa baino %9,8 diru-sarrera altuagoak dituztelarik, emakumeek Erkidegoko batez bestekoa baino %14,2 gutxiago kobratzen dute. Lanpostua duten emakumeen diru-sarrerak, batez beste, gizonen batez besteko sarreraren %78,1 dira.

LANEAN ARI DEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA ETA SEXUA

Sexua	Batez besteko sarrerak €tan	EAEko batez bestekoa- rekiko %
Gizonezkoak	1.358,99	109,8
Emakumezkoak	1.061,34	85,8
Guztira	1.237,55	100

Iturria: LME

5. Adina

Adina ere batez besteko diru-sarreraren jokaera zehazten duten aldagai demografikoetakoa da: adinean behera joan ahala, diru-sarreraren batez bestekoa ere urritu egiten da. 20 urtetik beherako gazteen batez besteko diru-sarrerak EAEko batez bestekoa baino %34,9 urriagoak dira; proportzioa %25,1ekoa da 20 eta 24 urte arteko taldean, eta %12,3koa 25 urtetik 29ra artekoan. 30 urtetik gora, zifrak batez bestekora hurbiltzen hasten dira, eta 35 urtetik aurrera, batez bestekoaren gainetik jartzen dira. Diru-sarrerarik handienak dituen kolektiboa 50 eta 59 urte arteko biztanleenak dira, %10 baino gehiagoko aldeaz gaintitzen baitute EAEko batez bestekoa.

LANEAN ARI DEN 16 ETA 64 URTE ARTEKO BIZTANLERIA ETA ADINA

Adina	Batez besteko sarrerak €tan	EAEko batez bestekoa- rekiko %
16-19	805,12	65,1
20-24	926,92	74,9
25-29	1.085,81	87,7
30-34	1.178,08	95,2
35-39	1.258,93	101,7
40-44	1.319,82	106,6
45-49	1.333,30	107,7
50-54	1.361,60	110,0
55-59	1.381,21	111,6
60-64	1.314,08	106,2
Guztira	1.237,55	100

Iturria: LME



Azterlanaren ondorioak aipagarrienak

E2005eko urtealdian, EAEko langileek 1.237,55 euroko sarrerak jaso zituzten, batez beste, hilean. Dena den, lanean ari den biztanleriaren %30,2 ez da hileko 1.000 eurora iristen.

Horrez gain, lanean ari den biztanleriaren barruan, enpresa pribatuetan diharduten soldatapekoek EAEko batez bestekoaren %93,4 kobratzen dute.

Bestalde, aldi baterako kontratuen menpe diharduten soldatapeko langileek 987,11 euroko sarrerak dituzte hilean (batez bestekoaren %79,8). Hortaz, aldi baterako kontratua duten langileak "mileurista" deritzenetakoak dira.

Diru-sarrerak sektorez sektore aztertuta, oparoenak industrian eta eraikuntzan lortzen dira, eta urriena, alde handiz, nekazaritzakoak dira. Zerbitzuen sektoreko adar batzuetako diru-sarrerak –merkataritza, ostalaritza eta etxe-zerbitzukoak, esaterako– batez bestekoaren oso azpitik daude.

Daturik esanguratsuenetako bat emakumeei, oro har, lan arloan jasanarazten zaien bereizkeria da, kolektibo horren diru-sarrerak, batez beste, gizonezkoek kobratzen dutenaren %78,1 bestekoak dira eta.

Adinari begiratuta, 16 eta 24 urte arteko gazteek, batez beste, hilean 866,02 € garbi kobratzen dituztela nabarmendu behar da.

2


Lan-errentek gero eta partaidetza murriztagoa dute aberastasunean

Eustatek EAEko 2006ko errentaren banaketaren gaineko datuak eman ditu argitara. Datuok lan-errentek eta enpresa-soberakinak BPGari (sortutako aberastasunari) egiten dioten ekarpena aztertzeko eta aberastasunaren banaketari zein bilakaerari buruzko ondorioak ateratzeko aukera ematen dute.

Datuak egiaztatzen dutenez, aberastasunaren banaketa bidegabeak enpresa- eta kapital-errentei egiten die mesede, lan-errenten kaltetan. Horrela ba, 2006an, lan-errentak BPGaren %48,3 izan ziren, hau da, aurreko urtean baino lau hamarren gutxiago.

Oraingo hazkunde-aldia hasi zenetik (1993an) lan-errentei BPGan dagokien partaidetza etengabe eta nabarmenki urritu da; zehazki, BPGaren %54,7tik %48,3ra gutxitu da 1993 eta 2006 artean.

LAN-ERRENTAK / BPG (%). EAE. 1993-2006



Iturria: ELA, Eustaten datuetan oinarrituta

Hona hemen lan-errenten partaidetzak galdutako 6,4 puntuen bi ondorio:

- 2005ean lan-errenten partaidetza 1993an bestekoa izan balitz, 3.970 milioi euro handiagoak izango ziren lan-errentak.
- Soldatapeko langile bakoitza, batez beste, 5.000 euro galtzen ari da aberastasunaren banaketak ageri duen bilakaeraren ondorioz.

LAN-ERRENTEN GALERA EAEN. 1993-2006


Lan Errentak guztira	3.970 milioi €
Soldatapeko langile bakoitzeko	5.000 €

Iturria: ELA, Eustaten datuetan oinarrituta

EAEko ekonomiak hazkunde bizia izan du azken urteotan. Hala ere, hazkunde jarraitu horrek ez dio onurarik ekarri langileriari. Aitzitik, erabat kontrakoa gertatu da: soldatapeko biztanleriak aberastasunaren banaketan duen pisua urritzen ari da, enpresa-errenten eta kapital-errenten mesederako.

Ikus ditzagun datu zehatzak: 1993tik 2000ra arteko aldirian, Soldatapekoen Lansaria (langileen eskuetara doan aberastasun-zatia) BPGa baino askoz proportzio txikiagoan hazi da (%119,8 eta %147,1, hurrenez hurren). Enpresen Soberakin Gordinak (enpresa-errentak eta kapital-errentak), ordea, BPGak baino hazkunde handiagoa izan du aipatutako aldirian, %167,9 handitu da eta (lan-errentak baino 48,1 puntu gehiago).

BPGA, LAN-ERRENTAK ETA ENPRESA-SOBERAKINA (% ALDAKUNTZA). EAE. 1993-2006



Iturria: ELA, Eustaten datuetan oinarrituta